

Olazabalek ezin izan du txapela jantzi

Jauregi lagun zuela, 22-17 galdu zuen finalean ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-12-20 ▶ III. urtea ▶ 767. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

«Zapore gazi-goza» utzi dio finalak Aitor Mendiluzeri

IRURA ▶ Zazpigarren egin zuen herenegun Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean; harro dago, dena den, «oholtza gainean egon ahal izan dudalako» ▶ 4



Aitor Mendiluze, saria jasota, BECen elkartutako bertsozaleak agurtzen. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAKZI PRESS



I. GARCIA

Gaurtik «normaltasunean aritzea» espero dute Angulas Aginagan

IRURA ▶ Larunbateko leherketak «soilik kalte materialak» eragiteaz poztu da enpresa ▶ 6

TOLOSA ▶

Kirola eta euskara eskutik, Kirol Astean

Kirol Jardunaldiak adituekin, gaur ▶ 3

ALEGIA ▶

Gaztetxea, urteurren ekitaldietan murgilduta

Ostiralean, Sorkunen kontzertua ▶ 5

hitza **txokoa** lagun

▶ HITZA harpidedunen artean...

... Aio, Leitze! Leitzako Euskararen Hiztegia liburuaren 3 ale zozketatuko ditugu

Zozketan parte hartzeko deitu: 943 65 56 95 telefonora.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak ostero



ARETO FUTBOLA ▶

HEGOALDE ▶ 3

A. VALLADOLID ▶ 2

Hegoalde. Idoia Manrique, Miriam Arana, Ane Larrañaga, Itziar Aldezabal eta Maider Lopez —hasierako bostekoa—; Emi Ugarte, Sarah Ugarte, Vicky Delgado, Ana Berziano eta Naiara Mayo. Entrenatzaileak: Mikel Larrea eta Ruben Salvador.

Adae Valladolid. Eva Rodriguez, Escarlata Salvador, Rosangela Sousa, Leti Martin eta Elena Garcia —hasierako bostekoa—; Lidia Castell, Maria Wallerie Dinha eta Mari Jose Domenech. Entrenatzaileak: Francisco A. Mellado.

Golak. 1-0: Sarah Ugarte (13m.); 2-0: Emi Ugarte (21m.); 2-1: Dinha-k (32m.); 3-1: Emi Ugarte (34m.) eta 3-2: Elena Garcia (36m.).

Epaeleak. Antonio Altuna Gomez eta Saturnino Garcia Blanco (Kantabria, Espainia).

ATSEDENA

Hiru astez geratuko da lehiaketa Gabonetako oporraldia dela eta; datorrena UCAM Murciaen aurka dute

«Beharrezkoa zen garaian, garaipena eta joko hobekuntza»

Adae Valladolidi 3-2 irabazi dio Hegoalde eta sailkapenean gora egiteaz gain, «arnasa hartu» dutela diote jokalariek

IRATXE ETXEBESTE

Adae Valladoliden aurka irabazi egin zuen Hegoalde larunbatean 3-2 eta, hartara, gora egin du sailkapen orokorrean. Bertako jokalarien hitzetan, emaitza horrekin «arnasa hartu» du taldeak, Usabalen arerio izan zituztenak mende-ana hartu ondoren.

Bigarren zatian jokatu zuten tolosarrek ongien. Han erakutsi zuten sailkapenean postu hobean egoteko jokorik ez zaiela falta. Entrenatzaileek azkenaldian eskatzen zuten tentsioa eta indarra larunbatean erakutsi zuten Hegoaldeko neskek, eta, horrekin, joko maila ere nabarmen hobetu zuten. «Eta hori asko da orain».

Askok, lehiaketa hiru astez geratuko delako, lehen itzuliko hiru neurketa eta bigarren itzu-

li osoa falta direlako, eta sailkapen atzealdetik lehenbailehen alden du behar zelako.

Valladolid baino gehiago

Valladolid baino gehiago izan zen asteburuan Hegoalde. Egia da lehen zatia oso parekatua izan zela, eta bisitariak gol aukera garbiagoak izan zituztela tolosarren aldean, baina Sarah Ugarte sartutako golak abantaila eman zion Hegoalderi. Bigarren zatian, ordea, etxekoen joko erauntsia etorri zen: defentsan sendo, taktikoki jokaldiak ondo lotuz eta gol aukera ugari sortuz; «aukeran horixe falta izan da, gol aukeretan gehiago asmatzea, eta, hartara, neurketa lasaiago amaitzea», zioten Tolosako areto futbol taldeko jokalariek norgehiagokaren ostean.

Baina ez zen hala izan, eta zeken minutuetan estualdi batzuk jasan zituzten tolosarrek. Valladolidek bi jokalaririk galdu zituen txartel urdinarekin zigortu zituztelako epaeleak, eta horrek asko ahuldu zituen aurkariak.

Kontuak kontu, Espainiako Emakumezkoen Ohorezko Mailako hamabigarren jardunaldian lortutako puntuek mesede egin diote Hegoalderi, eta 13 punturekin, sailkapen nagusiko 11. postuan dago orain, Navalcarnero liderretik 19 puntutara.

Datorren partidari UCAM Murcia taldearen aurka ariko dira Mikel Larrearen eta Ruben Salvadorren neskek. Hemendik hiru astetara izango da hori, Gabonetako ohiko oporraldiaren ondoren. Ea indarberrituta itzultzen diren.

ARETO FUTBOLA ▶

Urte bukaera pozgarria Laskoraintzat garaipen berri bat lortu izanagatik

1 eta 4 irabazi zion Inter Intxaurrondo «pizti beltzari» larunbatean; seigarren postuan da

I. ETXEBESTE

Aurreko denboraldietako derbieten bi berdinketa eta lau porrot pilatu eta gero, zazpigarrenean lortu du Laskorainek Inter Intxaurrondori esku hartu

eta irabaztea. Bazen garaia, bai, horitxoek «Intxaurrondo-ko paraje goibel eta umeletan urte luzez mantentzen zuten birjinitate futbolistikoa galtzeko». 1 eta 4 nagusitu ziren Monseko kiroldegian larunbatean

Tolosakoak. «Norgehiagoka, birjinitate galera gehienak bezalakoxea izan zen: traketsa, aurrez hamaika bider amestutakoaren oso bestelakoa. Donostiarrak sailkapeneko postu arrisurtsuenetan bizi dira aurretan, eta bizileku honek ikuskizuna albo batera utzi eta emaitza bilatzera bultzatzen ditu, gogor eta intentsitatez jokatzera, futbol erakargarriaren kalterako».

Monseko zaletuek derbi «intentsioa eta gogorra» ikusteko parada izan zuten, baina kalitate murriztekoa. Etxekoak oso atzean sartu ziren estraineko minututik, eta are atzerago area ertzeko falta bati esker 1 eta 0 aurreratzea lortu zutenetik. Nabarmena zen hiru puntuak gordetzen zuten kaiolako zerraila ixteko asmoa zutela.

Laskorainek, ordea, «Calixto markako maisu-giltza» zuen aulkian, eta minutuak aurrera joan ahala, horitxoek joko maila altuagoaren poderioz Calixtok kaiola parez pare irekitzen asmatu zuen, *hat-trick* bikain bat lortuz: taldearen larunbateko lehen hiru golak

bereak izan ziren. Poz ikaragarria adierazten zuen neurketaren amaieran Calixtoren aurpegiak, bere taldekideen bezala, eta ez zen ez gutxiararako. Ikastolakoen laugarrena «Yustos konkistatzaileak» sinatu zuen.

Urte bukaera pozgarria

Zakuan hogeita puntu dituztela —sei garaipen, bi berdinketa eta lau porroten ondorioz lortutakoak hogeita puntu horiek—, eta sailkapen nagusiko seigarren lekuan, «gustura jango dugu turroia beste urtebetez», aipatu dute Laskoraineko jokalariek. Egizabal entrenatzailearekin eta Javi delegatuarekin batera aritu ziren larunbatean Domentxe, Telletxea, Saldias, Yustos, Gil, Alonso, Amatriain, Calixto, Zubillaga eta Arregi jokalariek. Urte bukaera pozgarria izan dute, beraz.

Usabalekoen harrobia aipatuz, Jorge Alonso Mourinho-ren taldeak 3 eta 2 irabazi zuen Denak Tabernak taldearen aurkako derbia. Muruarenak, baina, 3 eta 6 galdu zuen.

SASKIBALOA ▶

Lau taldeetatik hiruk galdu egin dituzte neurketak

I. ETXEBESTE

Liga Interautonomikoan, senior mailako Tolosa Aralar taldeak 74 eta 42 galdu du asteburuan Leioa Artearen aurka. Ez dira, ordea, partida galdu duten bakarrak izan, herriko gainerako hiru taldeetatik bik ere halaxe egin dutelako: infantilen mailan, Tolosa Argysan A-k 45-49 galdu du Ordiziaren kontra, eta Tolosa Argysan B-k 28-19 talde beraren aurka. Kadete mailakoek 54 eta 46 garaitu dituzte Loyola-Easokoak. Hala, emaitza horrekin Neguko Kopako Txapelketa irabazi dute Tolosa Argysaneok.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.** Anbulatorioa, larrialdiak: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroeko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua: 693930

▶ **Garraioak.** Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

▶ **Besterik.** Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Peugeot 406 STDT. 8 urte. Diesela. Aire egokitua. Extrak. 5.400 euro. Oso egoera onean. Telefonoa: 655 729 665.

Autoa. Chrysler Voyager Diesela salgai. Extra askorekin. Oso egoera onean. Telefonoa: 626 078 531.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ezingo da lantokietan erre, eta hainbat tabernatan erretzailentzako guneak jarriko dituzte. Zer iruditzen zaizu neurri berri hori?

GIZARTEA ▶

Aisialdirako eskaintzak non-nahi

Eguberri eperako ludotekak eta jolasak antolatu dituzte, gaztetxoei zuzenduta

NOELIA LATABURU

Gabonak: argiak kaleetan, kantuak guztion ahotan, bazkari eta afari legeak egiteko aitzaki... Eta, gaztetxoentzat, opor epea. Ez, horregatik, etxean egoteko epea. Hori dela eta, gaztetxoekin lan egiten duten taldeek Gabonetarako askotariko ekitaldiak eskaintzen dizkiete etxeko txikienei. Tolosako Gazteria sailak, esaterako, programazio berezia antolatu du, Gabonetako haur parkea, hain

zuzen ere. Hil honen 26tik 31ra izango da Ferialekuan, eta bertan, bugee run, zezen mekanikoa, puzgarriak, santa fe tren, ludoteka, balearen puzgarria, bideo jolasak, ohe elastikoak, puzgarri handiak, jumping, spider zone, atek eta bi tailer atonduko dituzte. Parkearen ordutegia 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era izango da, eta sarrera 3 euro ordainduko da.

Gazteek ere izango dute aisialdirako beta datozen Gabo-



Urtero izaten dira ludotekak; argazkian, Txilipurdikakoak, iaz. HITZA

netan. Izan ere, 13 eta 17 urte bitartekoentzat II. Gazte Astea antolatu du Gazteria Sailak. Hauentzat ere askotariko ekitaldiak, beraz, aukeran: asteartean, hilaren 27an: 16:30ean Ping-Pong eta Xake txapelketa izango da. Asteazkenean, 28an: 10:00etan futbol neurketak jokatu dituzte eta 16:30ean, berriz, pintxo lehiketa antolatu dute. Ostegunean, hilaren 29an: 16:30ean

aeroboxing praktikatuko ahal izango dute gazteek. Ostiralean, hilak 30, 19:00etatik aurrera, Tau Ceramica taldea Wintertur FCB taldearen arteko partida izango da ikusgai gazteei zuzenduta. Ekintza hauek guztiak Kultur Etxean egingo dira eta izena emateko topagunera jo beharko dute interesatuek.

Bestelako taldeek ere antolatu dituzte ludotekak, umeak

bertara joan daitezten. Galtaundi Euskara Taldeak, esaterako, Txilipurdika ludoteka antolatu du, urtero legez. Ludotekak hilaren 26tik urtarrilaren 6ra bitarteko iraupena izango du, 09:00etatik 13:30era, Tolosako Kultur Etxeko bigarren solairuan. Prezioa 40 eurokoa izango da —60koa bi anai-arreba izanez gero eta 90 eurokoa hiru izanik—. Hirukidek, berriz, hilaren 23tik urtarrilaren 5era, 3 eta 8 urte bitarteko haurrei ludoteka zerbitzua eskainiko die. Tailerak, jolasak, eskulanak, irteerak eta lagun berriak egiteko aukera izango dute. Hirukide Gainberrin egingo dute, 09:00etatik 13:00etara eta bazkaria bertan hartu nahi dutentzat 14:00ak arte luzatuko da. Informazio gehiago 943 67 39 48 telefono zenbakian. Atsedena taldeak ere Loiolara irteera antolatu du 7 eta 11 urte bitarteko haurrentzat, hilaren 26an, 27an eta 28an. Aukera non-nahi, beraz, lagun artean Gabon egun ahaztezinak igarotzeko.

KIROLA ▶

Kirola eta euskara protagonista egunotan, Kirol Astearen harira

Hainbat ekitaldi garatuko dituzte gaur, etzi eta ostirala artean

N. LATABURU

Gaur ekingo diote Kirolaren Asteari gurean. Hiru eguneko kirolak hartuko du nagusitasuna, askotariko ekitaldien bitartez Kirol Batzordeak eta Euskara eta Hezkuntza sailak antolatutako ekimen honetan. Kirol jardunaldiek irekiko dute, hain zuzen ere, astea; gaur izango dira, 17:00etatik 20:00etara, Kultur Etxeko areto nagusian. Helburuak, besteak beste, hauek dira: euskara

biderkatzeko aukera handiak dituen sektoreari —kirol begiraleak, irakasleak, masajistak — kirolak teknolektoa euskaraz irakastea, bide batez, haiek bere ikasleei ere normaltasunez irakats diezaieten. Bestetik, kirolak arlo osoak —kirolariak, kirolzaleak, entrenatzaileak, erakustailak, begiraleak— hobeto lan egin dezan birziklatzeko ikastaroak eskaintzea; euskaraz, gainera.

Estreinako saioak hiru atal izango ditu: lehenengoan, en-

trenamenduaren oinarri fisiologikoei inguruan jardungo da Iñaki Arratibel medikuak. Bigarren saioan, entrenamenduen planifikazioaz ariko da Julen Erauzkin medikua. Eta, azkenik, kirolean eman beharreko elikadurari buruz hitz egingen Xabier Leibar izango da. Hitzalditxo bakoitzak 45 minutuko luzapena izango du, eta bata bestearen atzetik izango dira; hortaz, 17:00etan hasi eta 20:00ak inguru amaituko da estreinako saio hau.

Jardunaldi gehiago egiteko asmoa dute batzordetik, planteamendua berdina izango delarik; hiru atal horietaz ariko dira jakitunak, baina modu orokorrean jardun beharrean kirol zehatz bati helduko diote, arrauna dela, eski nordikoa dela, mendia dela edo dena delakoa. Bestalde, kirolak agortzen diren heinean, gai zehatzekin hasiko dira: nekea eta dopina, besteak beste. Onintza Lasa Euskara eta Hezkuntza zinegotziak adieratzi duenez, «hizkuntz normalizazioan aurrera jarraituz eta sakonduz, kirol esparrua euskaraz ere jorra daitekeela agertzea garrantzitsua da».

Etzi, osteguna, saskibaloia partida interesgarria hartuko du Usabal kiroldegi berriak, Gipuzkoako jokalariek in o-

tutako talde bat aurrez aurre leihatuko baita Real Madrileko beteranoen aurka. Hitzordua 20:30ean izango da, eta bildutako dirua Saharari laguntzeko bideratuko da.

Eta ostiralean, berriz, kirolari omenaldi eguna antolatu dute. 19:00etan izango da omenaldi ekitaldia, udaletxeko batzar aretoan. Eta hauek kirolari omenduak: Armando Roca, Ederne Pasaban, Xabi Alonso, Kerna Caballero, Carlos Peña, Alvaro Felipe, Joseba Rojo, Nerea Otaegi, Josu Trabazos eta Joseba Ormazabal. Hauen guztien artean, 2005eko Tolosako Kirolari Onenari saria banatuko dute.

Usabal, eskaintza zabalduz

Bestalde, eta kirolaren harira jarraituz, Usabal kiroldegiak jakitera eman dutenez, bazkideek dagoeneko badute 2. hiruhilabeteko ikastaroetan izena emateko aukera.

Ikastaroen aukeren artean, tai-chia, acuagyma, haur eta gazte aerobika, haurtxoen igeriketa, yoga, helduentzako igeriketa eta hirugarren adin gimnastika aurki daitezke. Hauekin batera, epe honetarako berriak diren cycling-a eta pilates-a ere eskainiko dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero Usabal kiroldegira bertara jo daiteke, edota 943 53 64 00 telefono zenbakira deitu.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Tolosa. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Oso eguzkitsua. Ezin hobea. Etxesagasti. 943 69 68 56 telefono zenbakia.

Tolosa. 96 m²ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komun 1. Trasteleku eta garajearekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Bizitzeko moldatutako bulegoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Duplex-a salgai. Igogailua du. Eguzkitsua. Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Segura. Banakako baserria salgai, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta. Hiru logela dituen etxea berritzea. Igogailua du. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezketza. Elkarri abxikikato etxe berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Aduna. Familia bakarrerako

etxebizitza salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela.

Berokuntza, igogailua eta trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarrikoko etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan Tolosaldean.

IRURA ▶ BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Sentsazio «gazi -gozoarekin» amaitu zuen Mendiluzek txapelketako finala

Zazpigarren egin zuen Iruran bizi den bertsolariak, 1.156 punturekin; «oraindik Mendiluze hobego bat ikusteko gaude», iritzi dio Anjel Mari Peñagarrikanok



13.000 ikus-entzule izan ziren herenegun Barakaldo BECen, orain arte egin den bertso-jaialdirik handiena. XABI AIZPURUA / UROLA KOSTAKO HITZA

IMANOL GARCIA

«Zapore gazi-gozoa». Horixe da Iruran bizi den Aitor Mendiluzek herenegun Barakaldo BECen Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean izandako sentsazioa. Mendiluze zazpigarren sailkatu zen, 1.156 puntu-

rekin, Jon Maiarekin berdinduta. «Batzuetan asmatu dut eta besteetan ez, baina hortik aurrera harro nago oholztan egon ahal izan naizelako, final honet bertsolariarentzat dakarrenagatik», zioen Mendiluzek. Sentsazio gazi-gozoa izan zituen, beraz, bere emanaldia-

rekin, baina giroa «kristorena» zela azpimarratu zuen. Finalaren ondoko egun hauetan egin du oholta gaineko lanaren inguruko hausnarketa.

Finaleko giroari buruz iritzi bera du Anjel Mari Peñagarrikanok. ETBrentzat esatari lanetan aritu zen anoetarra, eta txapelketako azken saioa «ikusgarria» izan zela dio: «Bertsolariarentzat izan den egunik garrantzitsuenetakoa izan zen igandekoa. Giroa zirrargarria izan zen». Bertsolarien lanari dagokionez, «batik bat goizeko saioa oso ona

izan zen; arratsaldean maila zerbait jaitsi zen», dio Peñagarrikanok.

Mendiluzek egindako lanari buruz, «erregular-erregular» aritu zela dio anoetarrak. «Oraindik Mendiluze hobego bat ikusteko gaude, finalean egindakoa baino hobea. Nik espero dut egunen batean Aitor Mendiluze buruz-burukoa egitera iritsiko dela». Mendiluzek berak esandako hitzei erreparatu, «finalerdietan aurpegi gozoagoa erakutsi zuen finalean baino», dio Peñagarrikanok.

SAILKAPENA ▶

1. Andoni Egaña	1.796,5 puntu
2. Unai Iturriaga	1.746 puntu
3. Maialen Lujanbio	1.206,5 puntu
4. Amets Arzallus	1.206,5 puntu
5. Igor Elortza	1.174 puntu
6. Sustrai Colina	1.171,5 puntu
7. Aitor Mendiluze	1.156 puntu
8. Jon Maia	1.156 puntu

Finalaren emaitzari dagokionez, «garbi zegoen Egaña txapeliduna izango zela. Saio batean Egaña garaitu daiteke, baina saio bat baino gehiagotara beti irabaziko du. Finalean, afaldu eta gero beste saio bat egingo bazen ere, berak irabaziko zuen. Saioa gero eta luzeagoa izan, orduan eta zailagoa da Egañari irabaztea. Erretzen ez den motorra da». Bertsozaleek garbi omen zuten Maialen Lujanbio ez zela buruz burukoan laguntzeko Unai Iturriaga edo Amets Arzallus ziren hautagaiak. Jendeak ondo onartu zuen Iturriaga izatea hautatua».

Zortzi finalisten maila nabarmendu zuen Peñagarrikanok. Finalean sartu ez diren batzuk ere maila berean daudela azaldu zuen, «Amaia Agirre eta Jesus Mari Irazu, adibidez. Agirrek berak finalean egon behar zuen». Txapelketan zehar aritu diren bertsolarien gaitetasuna aipatzean, anoetarra bera lehiaketetan parte hartzen zueneko garaia ekartzen du gogora, fenomeno berria ez dela azalduz: «Txapelketa guk gaztetu genuen. Orain dela 20 urte Egaña, Sarasua, Eguzkitze, Lizaso eta ni neu oraingoan adina genuen».

Bertsolariet gain, finaleko jendetza eta bizitako giroa izan ziren protagonista. 13.000 ikus-entzule izan ziren finala zuzenean jarraitzen, orain arteko marka guztiak apurtuz. Iñaki Muruak, Bertsozale Elkarte-ko lehendakariak, txapelketak «sekula baino gazte gehiago» erakarri zuela nabarmendu zuen, eta epaileek eta gai-jar-tzaileek egindako lana eskertu zuen.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Lehiaketa

Gobernu Batzarrek, 2005eko azaroaren 28an, lehiaketa bidez ondorengo hornidura kontratatatzeko baldintza administratiboen agiria onartu zuen: Tolosako Leidor zinemako ekipamendu ikus-entzunezkoa eta eszenikoa, altzariak eta osagarriak.

1. Helburua: Leidor zinemako ekipamendu ikus-entzunezkoaren eta eszenikoaren, altzarien eta osagarrien hornidura, muntaiak eta instalazioak.

2. Lote bakoitzaren aurrekontua honako hau da:
1 lotea 818.324,67€
2 lotea 229.419,00€
3 lotea 23.183,61€
Guztira 1.070.927,28€

3. Kontratuaren iraupena: Hornidura entregatu eta jarri behar da 2006eko ekaineko lehenengo eguna baino lehen.

4. Espedientea ikusteko:

Kopibat - Poeta Lizardi plaza 2 Tel 943 65 51 66
Capitec- Gudari kalea 8 Tel 943 65 40 28

5. Behin-behineko fidantza:

1 lotea 16.366,49€
2 lotea 4.588,38€
3 lotea 463,67€

6. Behin betiko fidantza:

1 lotea 32.732,99€
2 lotea 9.176,76€
3 lotea 927,34€

7. Eskaintza egiteko tokia eta epea: Tolosako Udaleko sarrera Erregistrazio: Plaza Zaharra 6-B, Eskaintzak 2006 urtarrila 16ra, eguna, (13:00), arte

Tolosa, 2005eko abenduaren 15an - ALKATEA

KIMETZ

Eguberritako eskeintzak

% 20

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

Estetikako Zentru Integrala

Maite

Oparitu
aurpegi edota gorputzerako
tratamenduak
osasuntsu eta eder egoteko.

9:00 - 13:00
14:30 - 20:00

Erremerenti kalea - TOLOSA - 943 67 03 38

ALEGIA ▶ GAZTETXEA

Festa giroan ari dira ospatzen Gaztetxearen 18. urteurrena, parte-hartze handiarekin

Era guztietako ekitaldiak antolatu dituzte; besteen artean, Sorkun abeslariaren bisita izanen dute ostiralean; oraingoaz, arrakastatsuen, babarrun jatea

NEREA URBIZU

Jadanik antolatutako ekintzen erdira ailegatu dira Alegiako Gaztetxean, haren 18. urteurrena ospatzen dutela eta. Hasi berri dugun aste honetan hainbat ekintza ezberdin daude, etorri diren egun hauei jarraikiz. Gaur, esaterako, 21:30ean, Angel Cuerdorekin solasaldia izango da; DVD bat ere jarriko dute, Mongoliako parajeetan barna zaldiz egindako bidaia ikusteko parada izanik.

Bihar, Katalunian filmatutako *El Maquinista* pelikula (2004. urtekoa, eta Brad Andersonena) ikusteko parada izango da Gaztetxean, 21:30ean. Eta etzi mendia biziki maite duten horientzat aproposa den proiektioa jarriko dute, Mikel Saez Patagonian Torre Paine eskalatzeko, hain zuzen ere. Hau ere 21:30ean izanen da.

Asteburua iristea itxaron behar da musikaz gozatzeko, eta ez nolana; izan ere, gonbidatu bereziak ekarri dituzte aurten Gaztetxera: Sorkun Pa-



laz bezala, aurten ere haurrentzako eguna antolatu dute. O. ESKITXABEL

rental Advisor Crew-rekin, eta, ondoren, DJ Talo izango baitira.

Larunbateko eguna ez da ere arrunta izango: kaletik kan-

tari ariko dira alegiarrak, 16:00etatik aurrera, eguraldi freskoa badago ere. Eta, Gabon gaueko afari epelaren ostean inork kanpoan girorik aurkitu

nahi izanez gero, 01:00etatik aurrera «DJ porrusalda ta burrundie» egongo da. Hurrengo eguna lasai ederrean etxean egonik, astelehenerako agen-

dan hutsune bat libre utzita, 21:30ean, *A Tornallon* dokumentala ikusteko aukera ez galtzeko; «Balentziako baratzaren borrokari buruzkoa da», azaldu dute Gaztetxekoek.

Asteazkena, hilaren 28a, izango da, egun berezi hauen artean, haurrentzat benetan aproposa izango dena; izan ere, 17:00etan, ume festa deitu dute, jolasez, taloa jatez, edota mikrofono libreaz gozatzeko parada izango da bertan. Eta, nola ez, asteazkenero legez, zine-kluba ere izanen da, *Roma*, hain zuzen, Adolfo Aris-trainek zuzendutako lana.

Argi denez, gazte alegiarrek lana ez dute alferrik egin: bi hilabete eta erdiz egindako lanak bere fruituak eman ditu; izan ere, ez dute orain arteko ekintza bat bera ere bertan behera utzi. Gainera, egindako ekintza guztiak lortutako diruarekin ordaintzen dituzte, musika kontzertuak, esaterako, 5 eurotan izanik. Ostiralean, esan bezala, Sorkun entzungai eta ikusgai izanen da, 5 euroren truke. Aldaketa bakar bat jasan du egitarauak, mendiko filmak: Andeetako Alpamayoko irudien trukean, hurbilagoko gai baten inguruko dokumentala jarri zuten: perretxikuei buruzkoa, alegia.

Zalantzarik gabe, orain arteko ekintzetan arrakastatsuen lehenengoa izan zen; babarrun jatea. 60 bat lagun elkartu ziren, Gartxot eta Edorta musikajoleak giroturik. Hurrengo ekintzetan ere jende andana biltzea espero dute Gaztetxekoek.



hitza^k

zure marrazkia argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?

bidali zure marrazkia!

3 eta 12 urte arteko haurrak,

bidali zuen marrazkiak HITZAko egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zuen izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4



Parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarrean Tolosako Alde Zaharra Merkatarik Elkartek.

BAZAR AMIANO	KORREO, 44	SHANTI KIROLAK	RONDILLA, 11 Bis	GORROTXATEGI GOZOTEGIA	PLAZA ZAHARRA, 7
DAKARO	KORREO, 50	BERMUDEZ FRUTATEGIA	RONDILLA, 19	ARANBURU LIBURUTEGIA	SOLANA, 7
MAITE GOXOKIAK	KORREO, 19	MUÑAGORRI HARATEGIA	RONDILLA, 5	OGI-BERRI	ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
IRURA OKINDEGIA	KORREO, 50 (kaletartean)	KINU	RONDILLA, 17	OGI BERRI	NAGUSIA, 13
ALTUNA HARATEGIA	KORREO, 44	ALEJANDRO GOYA HARATEGIA	RONDILLA, 23	NATURAL BODY - B. COLLADO	NAGUSIA, 25
SUKIA HARATEGIA	KORREO, 39	XIRIMIRI TXOKOLATEGIA	ERREMENTARI, 40	KIMETZ	NAGUSIA, 23
LA CASA AZUL	KORREO, 21	INTERFILM	ERREMENTARI, 44	GORROTXATEGI DIETETIKA	NAGUSIA, 2
OGI ONA	KORREO, 37	LIZARRALDE HARATEGIA	ERREMENTARI, z/g	PIRULO'S	LEITZA z/g
NOOR	KORREO, 16	BILINTX LIBURUDENDA	AROSTEGIETA, z/g	EDEL LIBURUDENDA	LEITZA z/g
EZEIZA GOZOTEGIA	RONDILLA, 34	ZUNBELTZ DISKAK	AROSTEGIETA, 9	EL BACALAO GOXOKIAK	KORREO, 51 (KALETARTEAN)

ALDE ZAHARREKO OSTALARITZA ELKARTEA

IRURA ▶ GERTAKARIA



Angulas Aginaga enpresaren eraikinak erakusten zuen itxura, atzo. I. GARCIA

«Normaltasunean» aritzea espero dute Aginagan gaurdanik

Larunbat arratsaldean jasandako leherketan «zauriturik ez eta kalte materialak soilik» izateaz poztu da enpresa

IMANOL GARCIA

Irurako Angulas Aginaga enpresak gaur dagoeneko «normaltasunean aritzea» espero zuen, bertako iturriek diotenez, larunbat arratsaldean lehergaiu batek eraikinaren ondoan eztanda egin eta kalte materialak sortu eta gero. Ustez ETAK jarritako lehergaiuak laupabost kilo kloratita zituen, Barne Sailak azaldu duenez.

Enpresak «jasotako babesa» eskertu du eta poztu da «ez di-

relako zauriturik suertatu eta bakarrik kalte materialak gertatu direlako». Leherketaren unean garbiketako eta segurtasuneko langileak bakarrik zeuden eraikinean. Larunbat batzuetan, Eguberriak iristen ari direla, lana egiten da produkzioaren beharreatatik, baina ez zen aurreko eguneko kasua izan. Segurtasuneko langileak ohartu ziren kamaren bitartez norbaitek «motxila susmagarri» bat utzi zuela eraikinaren ondoan.

Kalteak bulegoen zonaldeak jaso ditu, fatxadari nabarmen eraginez eta leiho asko hondatuz. Leherketak, baina, ez dio produkzioari eragin. «Produktuen elaborazioan normaltasunez jarraitu ahal izan dugu», adierazi diote Hirzari enpresatik.

Bestalde, langileen «animo ona» nabarmendu dute. «Laguntzen aritu dira hondakinak jasotzen eta bulegoetako materialen lekualdaketa egiten», azaldu dute.

ANOETA ▶ IKASTAROA

Eskulanak material askorekin egiteko

Urtarrilaren 12tik ekainaren 8ra arte iraungo duen eskulan ikastaroan margoketa dekoratiboa, portzelana, zumetza edota pirograbatua bezalako arloak landuko dituzte, besteak beste. Oste-gunetan izango dira eskolak, 15:45etik 17:45era. Izen-ematea hilaren 22ra arte izango da udaletxean, 09:00etatik 13:00etara.

MUSIKA ▶

Loatzo Musika Eskolaren emanaldiak

Gabonak datozela eta, Loatzo Musika Eskolak hainbat emanaldi antolatu ditu horien inguruan, eskualdeko hainbat herritan. Adunan, gaur, 18:30ean; Zizurkilen, bihar, 19:00etan, eta etzi Anoetan 18:00etan, Villabonan 19:00etan, eta, eguna bukatzeko, Altzon, 19:30ean. Ostiralean, Ale-gian, 18:00etan.

IRTEERAK ▶

Haurrentzako irteerak Gabonetan

Gabonetako irteerak antolatu dituzte haurrentzat Alkizan, Adunan eta Larraulen. Hilaren 29an 2 eta 5 urte bitartekoak Donostiako PINera joanen dira, bazkaltzerako bueltatuz. Urtarrilaren 4an 6-12 urtekoek PINa bisitatuko dute, eta arratsaldean Txuri Urdinera joango dira. Izen-ematea udaletxeetan, etzi baino lehen (943 69 39 30).

LARRAUL ▶ MUSIKA



Freezen taldea haien kantuetako bat jotzen. HITZA

Freezenekin, ostatua 'dardar' batean

Larraulgo Herri Ostatuan aritu ziren Beasaingo Freezen eta Sili-konay taldeak asteburuan. Bertan egon zirenen beroaz eta hurbiltasunaz gozatu zuten, bai musikariek eta baita entzuleek ere. Izan ere, ostiral gaueko hotzak berotu zuten bi taldeek.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@ennioes.com
www.ennioes.com

Alto. Ebe bifamiliari ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.

Asteasu. 250 m2ko ebe bifamiliari, eraikuntza berrikoa!!!

Belauntza. Eraikuntza berriko ebebizitza bifamiliari. 462.780

euro.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko ebe bifamiliari salgai, oso egoera onean.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. Euskalerria, 3 loela. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua.

Ibarra. Lokal komertziala alokairuan. 60m2koa. Salmentan edo alokairuan.

Tolosa. Montezku. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratza eta txabolarekin. 204.345 euro.

Tolosa. Berazubi. 2 logelako ebebizitza. Bizitzera sartzeko modukoa. 234.395 euro!!

Tolosa. Sputnik. Duplex altua. Berritua.

Tolosa. Amaro azoan 3 logelako ebebizitza salgai. 225.380 euro. igogailuarekin.

Tolosa. San Esteban azoan. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m2ko ebebizitza berrituko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean (oso toki onean). Eraikuntza berriko ebebizitza. 3 logela eta bainugela. 371.425 euro.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako ebebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen ebebizitza salgai.

Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Laskurain. 80 m2 bizitzentzako modukoa. 297.500 euro.

Tolosa. Ibarrik gertu. Duplex-a garaje ibiarekin. Guztiz berritua. 297.500 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela.

Tolosa. Kanpoaldera altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.

Trastelekua, garajea. 330.560 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120m2-ko eraikuntza berriko ebebizitza salgai.

Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabe!! 4 logelako ebebizitza ederra, garajearekin salgai.

Tolosa. Geltokialdea, alderdi berrian. Garaje itxia alokairuan.

Tolosa. Erdialdean 253 m2ko lokala (bi solairutan banatua) salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2000 m2 pabiloi industrial alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba Etorbidean. Garajea alokairuan.

Tolosa. Zabalaretan parek inguruan, garaje itxia salgai.

Txarama inguruan. 100 m2ko ebebizitza terrazarekin salgai.

Egongela su bajuarekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. 24.400 m2ko lursaila eta 140 m2 borda.

LEITZA ▶ FUTBOLA

«Pozik», emaitza eta lehen itzuliarengatik

Irunberriri 2 eta 3 irabazita, hirugarren lekuan doa Aurrera

JAIONE ASTIBIA

Herenegun beste garaipen bat gehiago eskuratu zuen Aurrera, laugarrena jarraian, kanpoan eta Irunberriren aurka, bere zuzeneko arerioa. 2 eta 3koarekin itzuli ziren etxera, «pozik», ziotenez.

Garaipen hau «oso garrantzitsua» zela adierazi zioten Hitzari atzo taldeko ordezkariek. Irunberriri igoerako leku horietan beraiekin lehiatzen daogoen taldea izaki, gainera puntu kopuru berdinarekin ere bazegoen. Orain, Ligako lehen itzuliko azken partidua ere bazen eta leitzarrak aurretik jarri dira; hirugarren daude, 26 punturen, aurrekotik 2ra eta biga-

rrenetik bakarrera. Beraz, «osogustura» ageri ziren Aurrera-koak, kokapen orokorragatik, eta lehen itzuliari dagokionez «oso balorazio ona» egin zuten, «jarritako helburuak bete» doazelako, hots, «igoeralekuetan, aurreneko lauetan egotea». Irunberrin egindakoa «oso baliosutzat» jo zuten.

Hala, lehen zati oso ona egin zuten jokalariek, baloiaren jabetza eurena izan zen gehienetan, eta golak ere halaxe egin zituzten: atsedenera 0-2ko markagailuarekin joan ziren, Antton Gomezek eta Iker Bengoetxeak sartutako golei esker (jokalaria hau 3. mailako Txantrea joana bazen ere, duela bi jardunaldi itzuli zen berriro. Bi-

garren zatian bertakoak partiduari buelta eman nahian erasora ateratzen ziren zelaira eta tanto bat egin zuten, baina Eneko Gorostiagak Aurreraren aldeko errematea zigilatatu zuen, 1-3koarekin. Geroztik, azken minutuetan, iritsi zen haien bigarrena.

Gazteen taldeak, berriz, larunbatean zuten partidua, etxean, Altsasuren aurka. Eta nahiz «poliki» jokatu omen zuten, 3 eta 6 izan zen azken emaitza, etxekoen hiru golak Tijerok egindakoak izanik.

Aurtengo azken partidua izan ziren hauek. Hurrengoak, urte berrian, 2006ko ilbeltzean, 7an eta 14an jokatuko dituzte, hurrenez hurren.

ARESO ▶ KIROLAK

Mikel Olazabal DV pilota sariketan azpitzapeldun

Jauregirekin batera, 22 eta 17 galduta, txapela Erreak eta Oteizak eskuratu dute

J. ASTIBIA

Mikel Olazabal aresoarrak, hortxe-hortxe ibili arren. Zartuz herenegun jokatu zuten DV pilota sariketako finalerako txapelketaren eskuratzeko ez zuten izan. Atzeko koadroetan lagun Iñaki Jauregi soraluzearra zuela, 22 eta 17koarekin, azpitzapeldun ateratzen ziren.

Besteak beste, giro ikusgarria jarri zuten Aresotik ere joandako hainbat eta hainbat jarraitzailearen aurrean, etxekoei ez zitzaizkien gauzak ongi ateratu: 6-0 galtzen hasi ziren, 13-5ekoa ere ikusi zuten, Errea eta Oteizaren aldera joanez tantoak, batez ere atzelarien lana oso ona izanik, baina, baina errematean aresoarrak ez zuten oso ongi asmatu: «Airez jokatzekoan, ezkerreko eskumuturrean min hartzen nuen eta ikaraz aritu nintzen», adierazi zion Hitzari atzokoan Olazabalek berak. Baina min eta guzti, hala ere, etsirik hartu gabe, partiduari buelta ematea lortu zuten, 16na berdinduz, arerioari lanak asko zailduz, eta aresoarrak ohiko dituen eta txapelketa guztian zehar erakutsi dituen moduko tanto politak eginez. Baina, akats

pare bat tarteko, azkenik txapela besteentzat gelditu zen. Aitatu behar da Zarautzeko final honetan berean txapelketako pilotari onenaren saria ere Oteizari eman ziotela.

Txapelketa osoan zehar egin duen joko ikusgarriagatik eta, faborito gisa jotzen nuen eta hor egon zen gakoan, azaldu zuen berak. «Hurrengoan beharko», zioen, eta dagoneko jokatuko dituen hurrengo txapelketak prestatzen ari da, atzo berean hasita.

Elgoibarko eta Mallabiarako dituen buruan, biak bi-bitara izaten direnak. Aitatu zenez, gainera, Elgoibarko sariketan, Jauregi bera izanen omen du bidelagun atzeko koadroetan, orain arte jokatu duten honetan bezala. Mallabiakoan, berriz, zazpi partiduko ligaxka jokatu behar omen da, bakoitzean «atzelari desberdinarekin», zehaztu zuten. Gero, finalera, «aurrelari eta atzelari onenak» sailkatuz. Horrela, aurretik halako lanak izanik, ezker eskumuturra sendatzea du lehentasun multak.

LEITZA ▶ MUSIKA



Eguberri giroan, Jeiki, ahots eztiz kantari, dotore

J. Astibia ▶ Aste hau bukatzerako Eguberriak hementxe izanik, lehengo ostiral iluntzean egin zuen Jeiki abesbatzak Gabon-kantuz osatutako emanaldia. Eta dotore egin ere, eskaini zituzten 21 kantuez baliatuz, Eguberriren «historiatxoa» islatu nahi izan baitzuten: «Jentilen negu muga-

tik» hasita, Gabon enborra, elurra... aitatzen dituztenak abestuz; edota «kristauen Eguberrietara» igaroz, belenak, haurtoxoak...protagonista direnak. Hori bai, denak egun abestu ohi direnak. Kontzertuan, koru lana erakutsi zuten, eta hainbat piezetan bakarka ere aritu ziren. J. ASTIBIA

hilberriak ▶

DENIS UZIN



Beti izango zaitugu gure bihotzean.

Maialenen eta Denisen lagunak

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 eixetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Denis Uzin Egialde



Sarritan ibiliek elurra hotzean madarikatzen dugu zu harrapatzean baina mendi zurian gauden bakoitzean Denis egongo zara gure bihotzean

Etxe Zuriko lagunak

AZPEITIA, 2005eko abenduaren 20a

Denis Uzin Egialde



Hik emandako indar eta maitasuna ez zaiguk inoiz agortuko

Txarrantxako lagunak

AZPEITIA, 2005eko abenduaren 20a

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako bilera, ekimen berriak antolatzeko. 19:00etan, udaletxean.
Alegia. Afrikako perkusio ikastaroa, gaurtik etzira, 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat, doan. Izen-ematea, Kultur Etxean.
Ibarra. Alurr dantza taldearen historia biltzen duen DVDa salgai dago Tolosako Ortazar dendan (Maxi Eroski parean), eta Ibarra Zubiurre tabernan, Sendi ekintzan eta Lourdes dendan.
Tolosa. Zine-klub taldeak bilerara deitu du gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Azkenaldian landutako gaiak eta proposamenak azalduko dituzte jendaurrean, horien artean Udaleri proposatutako Leidorreko kudeaketa zinema arloan.

HITZALDIAK

Tolosa. Kirol jardunaldiak: Inaki Arratibel, Julen Erazukin eta Xabier Leibar. 17:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean. Kirol Astearen baitan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Alegia. Angel Cuedoren eskutik, Mongolian zaldiz egindako bidaia. 21:30ean, Gaztetxean. 18. urteurrenaren baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia
(107.5 FM - 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: egurgaldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepeaso, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi guri*, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatutako irratsaioa.
 19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Esker onez

TOLOSALDEA ▶ Behar Zana elkarteak, Abegik eta Antonio Zabalak jaso dituzte Galtzaundiren Eskerrak Zuri sariak; Ohorezko Aipamena, Marimi Ugaldereztzat

ERREDAKZIOA

K irol, kultur eta gizatasun arloan eskualdeko pertsonaren edo erakundearen batek egindako lana eskertzeko, urtero legez, Eskerrak Zuri sariak banatu zituen ostiral iluntzean Galtzaundi Euskara Taldeak, Tolosako udaltzar aretoa.

Kirol arloan, Behar Zana elkarte saritu du aurten Galtzaundik, 1946an sortu zenetik «errebotea sustatzeko, indartzeko eta bultzatzeko etengabe egindako lanagatik», pilotari profesionalen harrobia izateagatik —«100 profesional baino gehiago eman ditu Villabonako herriak, eta gehienak, 1959az geroztik, elkartearen lanari esker»—, eta «beste hainbat kirol, kultur, gizarte eta aisialdi mailako ekimenen antolatzaile, sustatzaile eta babesle izateagatik».

Abegik jaso du aurten gizatasun arlokoa, «gure gizartearen bazterketa soziala pairatu behar dutenekin lehen elkartasun keinuen aintzindariak izan zirelako, Administrazioak zuen hutsuenak betetzen; Abegitik pasatu diren gizonezko eta emakumezko guztiek musutruk lan egin dutelako, etxerik gabekoen bizitzaren humanizazioa; eta, azken finean, gure herria ere gizatiartu dutelako».

«Umetan hasi zen istorioak, bertsoak eta gertakizunak jasotzen. Ondorengo urteetan ildo horretatik egindako lan itzela euskal kulturaren historian letra larriz idatzita dago honezkeru. Ezinbesteko ekarpen hori ohorez eta ondo merezita eskertu diote azkenaldian erakundeek. Guk ere gure esker ona adierazi nahi dioguz gaur, baina beste modu batera: hots handirik atera gabe». Antonio Zabalarantzat izan da, hain zuzen ere, aurtengo kultur arloko Eskerrak Zuri saria, «herritarren hizkuntza, gogo, oroitzapen, kezka, tristura, poza, hutsegite, dohain, maitasun, gorroto, otoitz eta festak



Zabala, Behar Zanak ordezkarria, Ugaldere, eta Abegiko ordezkarria, sariak eskuan. AMAIA SAGASTI / GALTZAUNDI

jaso, gorde eta unibertsal bilakatu dituelako».

Aipamen berezirik ere egon da aurten: Marimi Ugaldere Irurako alkatearentzat izan da Ohorezko Aipamena. «Elduainen jaioa, barren-barrenean beti sentitu izan da irurarra. Bere adineko jendea lana uzteko desiotan egon ohi da, baina

berak indarra du soberan. Zerikusirik izango du herritarrek azken urteotan eskaini dioten babesa. Bere ibilbide osoan euskalgintzan, kulturagintzan eta herrigintzan egin duena nabarmendu nahi dugu. Mereziduelako. Marimiri esker, gure herriak, gure kulturak eta gure hizkuntzak aurrera egin du».

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAREN egoitzara: ekarri argazkia



URTE ASKOAN
Jexux Mari Ormaetxea (Alegia).
 Zorionak ebekoen partetik, batez ere Nerearen partez. Muxu bat.



URTE ASKOAN
Txomin Urdepilleta Mujika (Anoeta). Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



ZORIONAK
Maialen.
 1, 2, 3, 4, 5 muxu.

Poxpolo Mokolo ta konpainia PAILAZOAK

Abenduak 23
 arratsaldeko 17:30etan
 Usabal polikirodegian, Tolosa

(sarrerak bertan 15:30etatik aurrera salgai)
 (sarrerak aurretik kultur etxean salgai)

Anima zaitetz!!!